

# GASTRO HAZIAK



Euskadiko gastronomia iraunkorraren etorkizuna

## Helburua

Ikasleak sentsibilizatzea gastronomia jasangarriak Euskadin duen garrantziaz.

Gastronomia honek:

- ☒ Osagaien jatorria kontuan hartzen du (non eta nola lantzen diren, nola iristen diren merkatuetara eta, azkenik, gure plateretara)
- ☒ Tokiko produktuak aukeratzen ditu, ingurunerako eta osasunerako dituen onura ugariengatik.
- ☒ Baserritarren eta arrantzaleen lana babesten eta balioesten du.

## Nori zuzenduta dago?

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei.

Euskal gastronomiaren etorkizuna markatuko duen belaunaldia.

## Zertan datza?

**On-line lehiaketa**  
**Azaroa 2024 - maiatza 2025**

Sailkapen fase honetan, talde bakoitzak 4 erronkatan parte hartuko du:

- ☒ Elikagaien jatorria.
- ☒ Lurretik azokara.
- ☒ Kultura gastronomikoa.
- ☒ Errezeta jasangarria eta elkarlanekoa.

Erronka bakoitzean taldean egin beharreko jarduera bat proposatzen da, eta horri puntuazio bat emango zaio. Erronka bakoitzeko puntuazioak batu egingo dira azken sailkapenerako.

**Lehen hiru sailkatuentzako «Gastro Haziak Esperientzia» Saria**  
**Ekaina 2025**

Elikagaien merkatu bat bisitatuko dute baserritar batek lagunduta eta sukaldaritzatailer batean hartuko dute parte, sukaldari batek lagunduta. Horrez gain, ikasleek zein irakasleek opari bat jasoko dute.

## Nola eman izena?

[www.gastrohaziak.eus](http://www.gastrohaziak.eus) webguneren bidez, «Eman izena» atalean. Ikasgela gisa parte hartuko da.

Lehiaketa 50 ikasgelatar mugatuta dago eta plazak inskripzio-ordenaren arabera esleituko dira.

## Loturak

### Eskola-curriculuma

GASTRO HAZIAK lehiaketak **funtsezko** kompetentziak (herritartasunerako, pertsonala, soziala, ikasten ikastekoa...) **eta diziplina arlo jakin batzuetako kompetentzia espezifikoak** (ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza, balio zibiko eta etikoak...) eskuratzea sustatzen du.

### Garapen Jasangarrirako Helburuak

GASTRO HAZIAK lehiaketak **elikadurarekin eta elikagaiak lortzeko eta kontsumitzeko moduarekin zuzenean edo zeharka lotutako GJHetan eragiten du, elikagaiak biltzeko eta prestatzeko moduak eragina baitu gure osasun pertsonalean eta planetaren zaintzan.**



### NIREA programa

NIREA programak, erantzunkidetasun sozialaren bidez, **lehen sektorea suspertzea eta Euskadiko landa- eta itsasertz-ingurunea suspertzea** sustatu nahi du; eta GASTRO HAZIAK lehiaketak helburu horiek lortzen lagundu nahi du, ikasleak baserritar eta sukaldariengana, tokiko merkatuetara, hurbileko eta sasoiako produktuetara...



Informazio gehiagorako: [gastrohaziak@ortzadar.es](mailto:gastrohaziak@ortzadar.es)